

### Zer da? Zertarako da?

Pasaporterik ez duen adin txikiko bati bere aitak eta amak edo legezko tutoreak atzerrira bakarrik edo beste pertsona batekin bidaiatzeko emandako baimena.


### Nork eska dezake?

Pasaporterik ez duen adin txikikoaren aitak, amak edo tutore-Adintxikikoak Hernanin erroldatua egon beharko du.

### Aurkeztu beharreko agiriak

- [Eskaera inprimaki](#) eredu normalizatuan.
- Adin txikikoaren NA (ezinbestekoa).
- Aita eta amaren edo legezko tutorearen NAN

### Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehenetik ostiralera: **08:00 – 19:00**

Hilabete bakoitzeko 1. eta 3. larunbatetan, 10.00tatik, 13.00tara

📞 **Telefonoa:** informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

🌐 **Internet:** [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) web orriaren bidez eskaera-orria bete eta Udaletxean aurkez dezakezu.

📧 **Posta arrunta:** Hernaniko Udala, **hhz**, Gudarien plaza 1, 20120 Hernani

### Zenbat kostatzen da?

Doan

### Prozeduraren epea

**Aurreikusitako epea:** Unean bertan

### Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

Eskaera jaso, gainerako agiriekin batera, eta egiaztatu.

Udalaren zigilua eta Alkatearen sinadura eman eta eskatzaileari luzatu.

### Nork onartu behar du?

Alkateak

### Tramitzatzeko ardura duen udal saila

Idazkaritza

Informazio gehiago: **943 337000** edo [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus)

### Oharrak

Indarrean dagoen NA eta adin txikikoentzako baimena aurkeztea nahikoa den herrialdeak:

Alemania, Andorra, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxemburg, Mazedonia, Malta, Monako, Noruega, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekia, Eslovakia, Rumania, San Marino, Suedia eta Suitza.

**Baimenaren balio denboraldia 30 egunekoa da.**